



ONK1

Programa

ONK1



01. SARRERA

Gizarte aldakorrean eta konplexuan bizi gara, eta horrek erronka berriak dakartza hezkuntzaren alorrean. Ikasleen ongizateak, garapen pertsonalak eta gizarteratzeak gero eta arreta handiagoa eskatzen dute. Testuinguru honetan sortu da **ONKI PROGRAMA**, Ikastolen Tutoretza Marko berrian oinarritutako lanketa, hezkuntza oso eta koherente baten parte gisa.

ONKI PROGRAMA barne sendotasunaren garapena bermatzeko tresna indartsua da, ikasleen ongizatea eta garapen osoa sustatzeko sortua. Konfiantzazko harremanak, seguruak eta osasuntsuak eraikiz, irakasleen, ikasleen eta familien arteko elkargune esparru bat sortzen du, elkarrekin bizitzeko konfiantzazko gunea. Ikasleen eraldaketa erdigunean jartzen ditu, eta emozioen kudeaketa, entzute aktiboa, elkarbizitzarako arauen adostasuna eta taldeko pertenezia sustatuko ditu besteak beste. Helburua ez da soilik jazarpena prebenitzea; ikasleen autoezagutza, soziala eta emozionala bermatzea da, bizitza bete eta orekatu baterako tresnak eskainiz.

ONKI PROGRAMA bizitza bete eta orekatu baterako tresnak garatzeko eta bizitzako egoera desberdinei aurre hartzeko, prebenitzeko aukera bat da.



02. TESTUINGURUA ETA PREMIA

Zergatik sortu da programa hau?
Zein beharrei erantzuten die?

Ikasleen garapen integrala bermatzeko beharra hezkuntza-sistemaren erronka nagusietako bat da gaur egun. Eskola-ingurunea ez da jada soilik jakintza akademikoaren transmisiorako espazioa; pertsonen hazkuntza eta ongizaterako gune ere bada. Zentzu horretan tutoretza funtsezko unea da.

Eredu horren garapena ez da modu espontaneoan ematen; bide eta tresna egituratuen beharra du. ONKI Programa, Ikastolen Tutoretza Plan Integrala, Hezkuntza Marko Orokorrak definitu duen Pertsona Eredua izango du oinarri, eta Pertsona eredua garatzeko tresna estrategikoa da. Ikasleen autoezagutza pertsonala, emozionala, soziala eta ekologikoa (jasangarritasuna), baita ikaskuntza-prozesu arrakastatsua ere (pentsamendu kritikoa eta sortzailea), modu sistematikoan lantzen du, ikaslea betetasunez erdigunean jarrita.

Azken urteetan hezkuntza-eragile askok ohartarazi dute tutoretzaren arloan ikuspegi integratua eta partekatua garatzeko beharra. ONKI Programak erantzun egiten die bai ikasleek dituzten egoera berriei (osasun mentala, elkarbizitza, autoestimua, hiperproduktzioa...), bai irakasle eta familien laguntza-beharrei. Horrez gain, ikuspegi profesional eta egituratu bat eskaintzen du, eguneroko praktikarekin konektatua, eta ikastolen hezkuntza-proiektuaren berezko printzipioekin bat datorrena.

ONKI Programa ez da soilik jazarpena prebenitzeko tresna bat. Harreman seguru eta osasuntsuak eraikiz, irakasleen, ikasleen eta familien arteko lankidetzarako esparru sendo bat eskaintzen du. Helburua da ikasleen ongizatea eta bizitza bete, orekatu eta zentzudunerako gaitasunak garatzea, bizikidetzaren positiboa, entzute aktiboa, emozioen kudeaketa eta taldeko pertenezia bezalako elementuak lantzearen bidez.



03. XEDE NAGUSIA

ONKI PROGRAMAREN helburu nagusia ikasleen autoezagutza pertsonala, fisikoa, emozionala soziala, eta ikaskuntza prozesu arrakastatsu baterako ezaugarriak sistematikoki eta era integratuan sustatzea da, ikastolen Hezkuntza Marko Orokorraren norabidean.

Pertsona eredua abiapuntu hartuta, programak ikasle bakoitzaren garapen osoa du xede: bere burua ezagutzea eta onartzea, besteekin harreman osasuntsuak eraikitzea, gatazkak modu eraikitzailean kudeatzea, emozioak adierazteko eta ulertzeko gaitasuna garatzea, eta taldearekiko, gizartearekiko eta ingurumenarekiko konpromisoa indartzea.

Azken fi nean, helburua ikasleek bizitzari aurre egiteko gaitasunak eskuratzea da, beren identitate pertsonal eta kolektiboa eraikitzea, eta bizitza bete eta zentzudun baterako tresnak lortzea. ONKI PROGRAMA, beraz, ez da tutoretza-proposamen isolatu bat, ikastolen hezkuntza-proiektuaren zutabe estrategiko bat baizik, Pertsona eredua eta hezkuntza integrala erdigunean jartzen dituen.

Pertsona eredua abiapuntu hartuta, programak ikasle bakoitzaren garapen osoa du xede



04. IKASTOLEN KONPROMISOA:

HEZKUNTZA INTEGRALERAKO IKUSPEGIA ETA ROL AKTIBOA

Ikastolen hezkuntza-proiektuaren funtsa pertsonen garapena eta ongizatea sustatzea da, horretarako, ikasleen neurri integralean hezkuntza jasotzea ziurtatuz. ONKI Programa horretarako ezinbesteko tresna da, ikastola bakoitzaren eguneroko hezkuntza-ereduaren baitan integratzen den egitasmoa.

Ikastolen konpromisoa ikasleak bere osotasunean artatzea da, eta hezkuntza integrala den ikuspuntu horretatik, ikasleen ongizatea lehenesten da, beraz, ez da nahitaez edukien ikuspegitik soilik jorratzen, baizik eta, aurretik ikusitako bezala, ikaslea pertsona oso gisa lantzen da.

ONKI Programa ikastolen hezkuntza-proiektuaren oinarri teorikoak eta pedagogikoak osatzen ditu, baina ez da soilik ikastola bakoitzaren hezkuntza-plana osatzen duen elementu bat. Programaren bidez, ikastolak hezkuntza integraleko eredu praktikoki aplikatzeko konpromisoa hartzen dute, eta hezkuntzaren ikuspegi aktibo eta partehartzaile bat eskaintzen dute ikasleei.

Ikastolen hezkuntza komunitatea—ikasleak, irakasleak, familiak eta hezkuntza-eragileak—oinarri horretan aktiboki parte hartzen du. Horrela, ONKI Programak hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea bultzatzen du, parte-hartzea, elkarlana eta ikasleen beharrak adierazten dituzten guneak sustatuz. Ikastola bakoitzak, irakasleek eta tutoreek bereziki izango dute garrantzia, ikasleen behar emozional eta sozialak modu eraginkorrean artatzeko gaitasuna eskaini behar dutenak.

Ikastolen konpromisoa ez da bakarrik hezkuntza-programen garapenean, baizik eta, orokorrean, gizarte-erantzukizunean oinarritzen da: ikastola bakoitzak, ezagutzaren transferentzia eta gizarte-konpromisoa uztartuz, hezkuntza eredu bat eskaintzen du non pertsona guztiek dute tokia, eta bere nortasun eta gaitasunak guztiz garatzeko aukera.

05. ZER DA ONKI?

Ikuspegi holistikoa eta oinarri pedagogikoak

Ikuspegi holistiko batek —hau da, esparruko elementuen arteko interdependentzia ekosistema konplexu gisa ulertzen duen ikuspegiak— eraginkortasun handiagoa eskain dezake. Izan ere, gaitasun giltzarriak profil eta ezaugarri desberdinak dituzten elementuak bereizten ditu. Batzuek jarreretan jartzen dute arreta, hau da, ekintzetarako joeran eta orientazioan; beste batzuek, berriz, eskumen-multzoetan.

Gizabanakoek egoera jakin bati aurre egiteko hainbat eskumen dituzte, eta eskumen horiek aldatu egiten dira zirkunstantzien arabera. Hortaz, esparru jakin bateko eskumen guztiak garrantzitsuak, beharrezkoak eta elkarren artean lotuta daude. Osotasun baten parte gisa ulertu eta tratatu behar dira.



Ikastolen konpromisoa ikasleak bere osotasunean artatzea da, eta hezkuntza integrala den ikuspuntu horretatik, ikasleen ongizatea lehenesten da



05. ONKI: NORTASUN PROPIOA. ZERK EGITEN DU BEREZI?

ONKI Ikastolen Elkartean propio sortutako programa da. BAZATOZ? Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorra erroa izanik, pertsona osotasunean hezteko eta eraldatzeko, eta ikasleen barne-baretasuna eta zoriontasuna, hau da, bizitza beteago eta orekatuago bat lortzeko aukera.

Norbera izate horretan barrutik kanporako bidaia izango da, bizitzarako eta momentuko eta etorkizuneko pertsona izaten, eta aurrera egiteko eta bere potentzial handiena lortzeko familia eta ikastolaren akonpainamendua ziurtatuz.



5.1 BEREIZGARRIAK ETA EZAUGARRIAK

PERTSONA-EREDUA

Ikastoletan ikasleak baino gehiago ikastera datozen pertsonak ditugu. Ikasletik harago, pertsona ikusten hasten garenean, ikas-prozesua humanizatzen dugu eta, horrek, ikaslearen alderdi pertsonala eta emozionala ezagutzen, jokamoldeak ulertzen eta hainbat egoera gizatasunez kudeatzen lagundu diezaguke. Ikasleenganako miresmenezko begirada horrek atxikimendu ziur bat sortzeko aukera emanen digu, barne sendotasun orekatsu, baketsu eta indartsu baten garapenean lagunduz. Alegia, norbera izaten eraikuntzan eta bizi-aldi batean bidelagun izaten.

Zaintzan ere jarriko dugu fokua. Zaintza funtsezkoa da gure eta gure ingurukoen ongizateari eusteko. Arreta jartzea, adi egotea eta gure osasun fi siko eta emozionala nahiz besteen babestea eskatzen du.

Norbere burua zaintzeak osasuntsu, zoriontsu eta kementsu egoten laguntzen digu, eguneroko erronkei aurre egiteko. Bestalde, zaintza sozialak besteekiko errespetuzko eta elkartasunezko harremanak sustatzen ditu, komunitate indartsuagoak eta enpatikoagoak sortuz.

Ongizate soziala izango dugu mugarri ere bai, harreman osasuntsuak eta bidezkoagoak izateko gaitasuna sustatzea hain zuzen ere, norbera taldean aritzeko lidergotza garatu, eta taldeko kide izateko sentimendua sendotu, hau guztia elkarzaintza oinarri duela.

Talde bateko kide direla sentitzen dutenean, komunitate-, laguntza- eta onarpen-zentzua sentitzen dute, eta horrek motibatu egin ditzake eta ongizate emozionala hobetu.

Giza eskubideen aldarrikapen unibertsala errespetatzea eta defendatzea oreka soziala gorpuzteko lagungarria izanen da. Pertsonari aitortzen zaizkion zenbait oinarritzko balore barneratuz, ongizate orokorra eta bizikidetzaren harmonikoa lortzeko aukera emango digu. Era berean, justizia soziala, aurreiritzien apurketa, desberdinak garela onartzea, tratu ona, genero-indarkeria eta edozein jazarpen motaren prebentzioan murgiltzeko parada izanen dugu. Ongizate honetan, pertsona eraldatzaileak eta arazo sozialekin konprometituak heztean parte bilakatuko gara.

Eraldatzaile izateko bide honetan, ezinbestekoak dira lankidetzaren, enpatia, komunikazio asertiboa eta autoeraketaren trebeak izatea, ONKI programak bermatuko dituenak. Ikuspegi kooperatiboa hau guztia hartzen du bere baitan, eta, beraz, mundu globalean bizitzeko eta une berrietara egokitzeko kooperazio lana lehenetsiko dugu besteak beste.

Planeta zaintzeko jasangarritasunaz eta iraunkortasunaz jabetzea oso urrats garrantzitsua da. Kontzientzia horrek, naturarekin harmonian bizitzaren garrantzia baloratzen eta gure komunitatean aldaketa positiboak sustatzen laguntzen digu.

Bizitza osorako eraldatze-prozesu honetan, ikasten ikastea bizitza osoan zehar lor daitekeen gaitasuna da. Helduaroa aldatzeko gidari garrantzitsua da, enplegarritasuna eta lehiakortasuna sustatuz.

Ikasten ikastea da beste trebetasun garrantzitsu bat. Gure mundua azkar aldatzen ari den honetan, litekeena da etorkizunean oraindik existitzen ez diren lanpostuetan lan egitea, oraindik asmatzeko dauden teknologiak erabiltzea edo ezusteko erronka globalei aurre egitea.

Gero eta datu gehiago izateak fenomeno sozial berriak dakartza, informazio desonestua nahita transmititzea bezala. Digitalizazioa aldatzen ari da jendea bizitzeko, elkarrengaitzeko, ikasteko eta lan egiteko.

Denbora berean eskatzen dute egungo herritarrak berpiztea, altxatzea eta ekintzaile-erabakitzaile bilakatzea. Aurre egin behar diegun erronken konplexutasuna eta interkonektzioa eta eratorrien aurreikusteko ezintasuna aukera eta mehatxuek esan nahi dute hiritarrak bizialdi osoko ikasle izateko beharra.

Ikasten ikastea ikaskuntzan jarraitzeko eta irauteko gaitasuna da.

Ikasten ikasteak norberaren garapenaz arduratzea dakar, hazkuntza mentalitatearen, pentsamendu kritikoaren/sortzailearen eta metakognizioaren bilakaeraz.

Pertsona eredu markoan lan egiteak ikasleekin bizipenak, zalantzak, jakingurak, interesak... konpatitzeko unea izango da ONKI Programa. Elkarrekin eta elkarrengandik hazi, eraldatu eta binkulu emozional eta seguruak eraikitzeko momentua. Maitasunezko begirada honek ikasleak euren bizitza proiektuan akonpainatzeko aukera izateko gunea.

Akonpainamentua egingo dutenen arteko komunikazioa (familia eta ikastola)

Elkarrekin bidea egin eta elkar akonpainatu ONKI Programaren funtsa da, denontzako bilgunea. Izaera abegitsu hau familiekin ere bat egiten du. Familiak eta ikastolak, ikasleen bidaide garen honetan, funtsezko zeregina dugu ikasleen garapenean, eta gure arteko laguntza eta komunikazioa garrantzitsuak izango dira heziketa integrala emateko. Eskolak eta familiak elkarrekin lan egiten dugunean, hobeto uler ditzakegu ikasleen izaerak, kezak, interesak eta zailtasunak, konfiantzazko eta lankidetzazko giroa sortuz. Hurbileko babes horrek ikasleak motibatzen, autoestimua indartzen eta ikaskuntza eraginkorragoa sustatzen lagunduko du. Gainera, komunikazio ireki, asertibo eta konstanteak balizko arazoak garaiz detektatzea eta konpontzea ahalbidetzeratuko du, ikasle bakoitzak ingurune seguru eta estimulatzailerik batean hazteko eta ikasteko behar duen euskarria jasoko duela ziurtatuz. ONKI-k familien, ikasleen eta ikastolen elkartzerako aukera emango du, elkarriketarako eremu akademikotik baino, emozionaletik eta eremu osoago eta integratuago batetik bideratze aldera.

Tutoreen eta ikastola komunitatearen eraldatzaile ere izango da ONKI Programa. Irakasleria ere pertsona ereduaren bereizgarri eta ezaugarrietan iaioa izaten lagunduko du, barne sendotasunean indartuz eta elkarrekotasunean trebatuz, ikasleen eta norberaren bizi arrakastaz gozatzeko aukera emango du.



5.2 Funtsezko printzipioak

ONKI Programaren funtsezko printzioak hiru eremuk osatzen dituzte

EREMU PERTSONALA (BARNE SENDOTASUNA eta EUSKALDUNA)

Eremu honetan, norberaren emozioen, pentsamenduen, balioen eta portaeraren kontzientzia eta adierazpena bermatzea dakar eta tokian tokiko eta unean uneko emozio egokian sentitzea.

Ikaskuntza eta ekintzari eusteko baikortasuna, itxaropena, autoefi kazia eta helburu sentipenak, hazkunde, arrakasta eta ongizate aukeretan sinestea esan nahi du, maila pertsonalean zein kolektiboan. Jarrera positiboa izateak erronkei konfi antzaz aurre egiten eta gure helburuekiko gogo biziz eta ziurtasunez lan egiten laguntzen digu.

Banakako portaerak, ezaugarri pertsonalek eta gizarte- eta ingurumen-faktoreek osasunean eta ongizatean eragina dutela jakitea funtsezko printzipioa da, eta

ongizaterako arrisku potentzialak ulertzea, eta informazio eta zerbitzu fi dagarriak erabiltzea osasunerako eta gizarte-babeserako.

SOZIALA (ERALDATZAILE-KOOPERATIBOA)

Enpatia/sinpatia da beste botere sozial eta emozionalak zabaltzeko eta harreman positiboak eraikitzeko gaitasuna. Enpatia pro-gizarteko portaera-eragile guztien oinarrian dago eta oinarri bat eskaintzen du estresak eta gatazkak konpontzeko. Hiru alderdi biltzen ditu: besteengan emozioak ezagutzeko gaitasuna; besteen perspektiba ezagutzeko eta egoera emozionalak haiekin partekatzeko gaitasuna; eta besteen emozioei erantzun egokia emateko gaitasuna.

Komunikazio asertiboa modu argian, zintzoan eta errespetuz adierazteko modu

bat da, ez oldarkorra ez pasiboa izan gabe. Hau da, zure ideiak, sentimenduak eta beharrak besteek ulertzeko eta errespetatzeko moduan adieraztea, eta, aldi berean, zuk besteen iritziak eta eskubideak errespetatzea. Oso trebetasun baliotsua da harremanak hobetzeko eta gatazkak eraginkortasunez konpontzeko.

Arrakastaz eta berrikuntzaz hitz egiteko, pertsona, erakunde eta sareen arteko elkarlan eraginkorra bultzatu behar da. Perspektiba eta atzerabegikoen aniztasunak rol positiboa izan dezake kolaborazioan, berritasun maila handitzen baitu, eta ideia-aniztasun handiagoa ematen baitu, eta eginkizun partekatuak betetzera hurbiltzen baita. Herritarrek beren gaitasuna garatu behar dute talde-ekintzetan eta -saioetan parte hartzeko, eta besteak bultzatu behar dituzte elkarlanean aritzeko, talde-lana zabaltzeko, beren jakintzak, eskumenak eta baliabideak bereganatzeko, helburu komun bat lortu ahal izateko.

Interdependentzia positiboa (elkarren ahaleginak erlazionatzea) eta elkarrekintza promozionala (batak bestearen ekarpenak bultzatzea eta erraztea) dira kolaborazioaren alderdi giltzarriak.

Eskolak eta familiak
elkarrekin lan egiten
dugunean, hobeto uler
ditzakegu ikasleen
izaerak, kezkak,
interesak eta zailtasunak,
konfiantzazko eta
lankidetzazko giroa
sortuz

IKASTEN IKASI (ERABAKITZAILE-EKINTZAILE)

Hazkunde mentalitatea, Norbere eta besteen potentzialtasunean sinestea etengabe ikasteko eta aurrera egiteko.

Irekitasuna eta jakin-mina (kuriiositatea) dira ikaskuntza-esperientzia berriak, dedikazioarekin eta lanarekin hobetzeko norbere ahalmenaren sinesmenaren euskarri.

Gero eta arreta handiagoa edukita, erronkei aurre egiteko aukera ematen du, oztopoei aurre egiten tematzen da, ahalegina beharrezkotzat jotzen du maisutasuna lortzeko, kritikaren bidez ikasten du eta besteen ekintzetan inspiratzen da.

Jakin-mina da mundua eta jendea hobeto ulertzeko interesa eta gogoia. Gainera, determinazioak, iraunkortasunak, epe luzerako helburuak ezarri eta lortzeko gaitasunak, bizitza osoko ikaskuntza lortzen laguntzen du.

Pentsamendu kritikoa goi-ordeneko pentsamendu-trebetasuna da, eta funtsezkoa da ziurgabetasuna, konplexutasuna eta aldaketa gainditzeko.

Pentsamendu kritikoak informazioaren, sinesmenen edo ezagutzaren analisi autoorientatua eta trebea egiten du, norberaren pentsaera berreraikitza bideratuz, problemak ebazteko ezagutza eta estrategia berriak ebaluatu eta

sortzeko metodoei buruzko ezagutza. Giza pentsamenduaren joera egozentriko eta sozioekonomikoak sentitzen ditu, arrazoiketaren kalitatean akatsak sor ditzaketenak, baita informazioa kritikoki ebaluatu eta ebaluatzeko borondatea ere. ONKI Programak filosofia izango du pentsamendu kritiko eta sortzailea garatzeko bide gisa. Filosofiaren bitartez, bizitzaren, ezagutzaren eta esistentziaren inguruan hausnartzea proposatzen da. Horrek pentsamendu kritikoa, hausnarketa sakona, zalantzan jartzeko gaitasuna eta argudiatzeko trebetasuna sustatzen ditu.. Honek pentsamendu kritikoa, haisnarketak sakona eta zalantzan jartzeko eta argudiatzeko gaitasuna sustatzen ditu.

Ikuspegi eta ideia desberdineko jarrera irekia eta errespetuzkoa sustatzen du, erabakiak hartzeko prozesuan eta hazkuntza pertsonalean baliogarria izanik.

Ikaskuntza kudeatzea jakintza metakognitiboa eta ikaskuntzaren araudi metakognitiboa bultzatzeko motibazioa da. Ezagutza metakognitiboak honako hauei egiten die erreferentzia: ezagutzari buruzko ezagutza oro har, norberaren ezagutza-egoera pertsonalari buruzkoa, eta norberaren ahuleziei buruzkoa, ikasten ari den aldetik; eginkizunari buruzko ezagutza, adibidez, bere zailtasun-mailari buruzkoa, zein estrategia mota diren egokiago hura konpontzeko, noiz eta zergatik erabiltzen diren jakiteko; eta ikasteko, pentsatzeko eta problemak konpontzeko estrategia orokorren ezagutza estrategikoa.

ONKI Programak filosofia izango du pentsamendu kritiko eta sortzailea garatzeko bide gisa. Filosofiaren bitartez, bizitzaren, ezagutzaren eta esistentziaren inguruan hausnartzea proposatzen da

5.3 Jarduerak, tresnak eta baliabideak

➤ Ekintza motak eta erabilera praktikoa

DBHko ONKI programak bi atal izango ditu, bata DBH1-2 eta bestea DBH3-4. Atal bakoitzak bost unitate edo sekuentzia izango ditu, eta bost egoera edo proiektu.

Era berean, ikasleak unitate bakoitzaren amaieran, edota tutoreak erabakitzen duen unean, jarduera berezi bat burutuko du, “zer daramat nirekin”. Atal bakoitzak, autohausnarketa bultzatuz, ikasleari benetan deigarri egin zaion bizipena, emozioa edo lanketa adierazteko aukera eskainiko dio ikasleari koaderno batean; norberaren ibilbidea edo biografia jasoko duen koaderno batean, hain zuzen.

➤ Materialak eta gida didaktikoak

ONKI Programak 2025-2026 ikasturtean DBHrako materiala argitaratuko du.

Materiala bi ziklotan banatzen da: DBH1eta 2; DBH3eta 4.

Ziklo bakoitzean bost unitate didaktiko eta bost komunitate proiektu diseinatu dira.

ONKI Programa aurrera eramateko denboralizazioari dagokionez, asteko 2 tutoretza saio proposatzen dira, eta jarduerak era sistematiko batean ikasgelatzea, lanketa metodologia honek bermatuko baitu pertsona eredu bereizgarri eta ezaugarriak barneratzea.

Irakaslearentzako eta familientzako gidak eskuragarri ere izango dira.

